

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresa aurrera eramateak hainbat kostu izango ditu, 2 atal nagusitan banatuko ditugunak: hasierako inbertsioa eta hilabeteroko kostuak. Era berean, bigarren atal honek beste bi azpiatal izango ditu kostu guztiak hobe sailkatzeko. Sortu ditugun taula guztietan, kostuak €-tan eta dolarretan bikoiztuta daude, gure enpresak bai Espainian eta bai AEB-n izango dituelako nabe bana.

Aipatu berri dugun moduan, lehenik eta behin gure proiektua martxan jartzeko hasierako inbertsioa zehaztuko dugu.

HASIERAKO INBERTSIOA			
KONTZEPTUA	ESPAINIA KOSTUA	AEB KOSTUA	GUZTIRA
PATENTEA	87 €	2.798,93 USD = 2.376 €	2.463 €
MARKA	127,88 €	350 USD = 297 €	424,88 €
MAKINERIA	165.000 €	181.500 USD = 154.113 €	319.113 €
ORDENAGAILUAK (4): Dell OptiPlex 7020 Tower + Monitor 24" + Teklatua + Sagua	2.500 x 4= 10.000 €	2.750 x 4= 11.000 USD = 9.340 €	19.340 €
GUZTIRA	175.214,88 €	166.126 €	341.340,88 €

Hasierako inbertsioa 341.341€-koa da, patentea (2.463€), marka (425€), makineria (319.113€, gehiena) eta 4 Dell OptiPlex ordenagailuak (19.340€) barne. Kostuak Espainian eta AEBetan banatuta daude, dolar-euro trukaketarekin kalkulatuta. Guztia, irabazi-iturrien atalean zehaztutako ekintzaileen ekarpenekin eta Santanderreko maileguarekin ordainduko dugu.

Jarraituz, gure enpresak izango dituen kostu finko eta aldakorak kalkulatu eta finkatuko ditugu:



KOSTU FINKOAK				
KONTZEPTUA		ESPAINIA KOSTUA	AEB KOSTUA	GUZTIRA
SOLDATAK	Ekintzaileena (2.000 x 4)	4.000 €/hilabetean	4.000 €/hilabetean	20.000€
	Fabrikan lanean arituko diren langileena, lau nabe bakoitzeko (1.500 x 4)	6.000€/hilabetean	6.000€/hilabetean	
PUBLIZITATEA: <i>Canspan</i> enpresarekin (TV, sare sozialak eta influentzerrak)		6.250 € (hilabeteroko kanpaina finkoa)	6.875 USD (hilabeteroko kanpaina finkoa) = 5.837 €	12.087 €
GARRAIOA: <i>DHL</i> enpresarekin		1.250 €/hilabetean	1.375 USD/hilabetean = 1.167 €	2.417 €
NABE INDUSTRIALAK: alokairua		2.000 €/hilabetean	2.200 USD/hilabetean = 1.868 €	3.868 €
WIFIA		583 €/hilabetean	1.500 USD/hilabetean = 1.273 €	2.083 €
GUZTIRA		20.083 €	21.950 €	40.548€

Kostu finko orokorrak bi herrialdeetan antzeko mailan mantentzen dira, nahiz eta AEBetako zenbatekoa zertxobait handiagoa izan. Espainian hileko kostu osoa 24.083€-koa da, eta AEBetan, berriz, 24.145€; beraz, apenas dago 62€-ko desberdintasuna.

Kostu nagusia ekintzaile eta langileen soldatak dira (20.000€ guztira), eta horiei gehitzen zaizkie publizitate-kanpainak (12.087€), garraioa DHL bidez (2.417€), nabeen alokairuak (3.868€) eta WIFIA zerbitzuaren gastua (2.083€).

Guztira, bi herrialdeetako kostu finkoak 40.548€ hilean dira, mantentze eta funtzionamendu-gastuak barne.

KOSTU ALDAKORRAK			
KONTZEPTUA	ESPAINIA KOSTUA	AEB KOSTUA	GUZTIRA
GASA	3.000 €/ hilabete	2.000 USD/hilabete = 1.698 €	4.698 €
ELEKTRIZITATEA	5.250 €/hilabete	6.250 USD/hilabete = 5.306 €	10.556 €
URA	583 €/hilabete	416 €/hilabete = 353 €	936 €
MATERIALA	10.000 €/hilabete	11.000 USD/hilabete = 9.340 €	19.340 €
GUZTIRA	18.833 € (hilabete)	16.697 € (hilabete)	35.530 € (hilabete)

Kostu aldakorrak ekoizpenaren eta erabileraren arabera dira, eta hileroko Espainian eta AEBetan antzeko gastua dute. Espainian guztira 18.833 € dira hilean, eta AEBetan 16.697 €, hortaz, bi herrialdeetan batera 35.530 € dira.

Gasturik handienak materialen erosketari dagozkie (19.340 € guztira), ondoren elektrizitatea (10.556 €), gasa (4.698 €) eta ura (936 €).